

## KATTALIN AGIRRE Comete sarearen zutabe

Kattalin Agirre lapurtarra 1897ko abuztuaren 28an Saran jaio eta 1992ko uztailaren 22an hil zen Ziburun. Lamothe zen bere berezko abizena, baina Pierre de Agirrerekin ezkondu ostean Kattalin Agirre gisa egin zen ezagun.

Bigarren Mundu Gerran zehar, Ameriketako Estatu Batuetako zerbitzu sekretuek antolatutako Margot eta Nana erresistentzia sareen parte izan zen Kattalin Agirre, Comete sarearen zutabe bilakatuz. Kattalinek eta bere alaba Josephinek, *Fifine*, Ziburuko etxean hartzen zituzten Bidasoa zeharkatu bezperan aterpea behar zuten hegazkinlari aliatuak. Beraien lagun min Florentino Goikoetxea izan zuten ama-alabek ezinbesteko bidaide abentura arriskutsu horretan. Behin guda amaituta, domina eta omenaldi ugari jaso zituen Kattalin Agirrek gobernu aliatuen eskutik. Tartean, 1985eko uztailaren 14an jasotako Frantziako Ohorezko Legioa.

Hegazkinlariak erori ziren tokian jaso, ezkutatu, zaindu, osatu, Alemaniak okupatutako Estatu frantsesa goitik behera ezkutuan zeharkatu, Euskal Herrira iritsi, Bidasoa ibaia gauez igaro eta Gibraltarren barrena pilotuak Britainia Handira heltzea ahalbidetu. Horixe izan zen Comete sareak 1941etik 1944ra behin eta berriro egin zuen lana.



## INESA GAXEN Bere hizkuntza eta ohiturak tinko defendatu zituen emakume ausarta

Inesa Gaxen 1566an jaio zen Nafarroa Beherako Bastida herrian, umetatik, baina, Bidasoa ibaiaren magalean, Hendaian, bizi izan zen. 18 urterekin, sorgina zelakoan atxilo hartu zuten Pierre de Lancre magistratuaren aginduz. Tortura latzak jasan zituen, eta, hala, bizitza osoan zehar bidaide izan zituen zorigaiztoko egun horietako arrastoak.

Bordeleko Parlamentuan epaitu eta Daquesen preso sartu zuten Inesa Gaxen. Haren aurka probarik ez zutenez, baina, libre utzi zuten azkenean. Bere egoeran zeuden emakume askok bezala, Pierre de Lancreren gurutzadatik ihesi Bidasoa ibaia igaro, eta Irunen hartu zuen bizileku hogei bat urtez. Ondoren, Hondarribian hartu zuen aterpe eta bertan Pedro de Sanzekin ezkondu eta alaba bat eduki zuen.

Zazpi urtez bizi izan zen Hondarribian Inesa Gaxen, baina zurrumurruek ez zioten bakerik eman eta hainbat haurrek sorgintzat jo eta salatu egin zuten berriz ere. Jaizkibel mendian akelarreak antolatzen zituela esan zuten, eta arrantza uxatzea eta Pasaiako portuko hainbat itsasontzi hondoratu izana ere leporatu zioten 1611ko maiatzaren 6an. Ipar Euskal Herritik ihes egindako beste emakume asko ere izan ziren garai horretan sorgin gisa salatuak Hondarribian, Mayora de Ilarra, Maria Echegaray, Maria de Garro edota Catalina Bereasarra besteak beste. Denek onartu zituzten euren kontrako akusazioak. Ez, ordea, Inesa de Gaxen berak. Jasandako presio eta estutasun guztiei aurre egin eta hasieratik bururaino ukatu zituen bere kontrako salaketa guzti-guztiak Hondarribiko Udalak maiatzaren 10ean antolatutako aurrez aurrekoan.

Hondarribiko epaileek –Sancho de Ubilla eta Gabriel de Abadia alkateek eta Gabriel de Avendaño artzipresteak– Logroñoko Inkisizio Auzitegiaren eskuetan utzi zuten auzia. Bertan, baina, behin sugar inkisitoriala baretuta, aurrez ebatzitako ondasunak itzuli eta kargurik gabe libre utzi zituzten salaturiko emakume guztiak, baita Inesa Gaxen bera ere.

Hondarribiko herriak ez zuen, ordea, epaia onartu. Hala, Gaxen beste sei emakumerekin batera berriz ere epaitu zuten, eta guztiak herritik bota zituzten. Hendaiako mugan utzi zituzten. Emakume horietako bat, Maria de Garro, hurrengo urtean itzuli zen bere bikotekidearekin elkartzeko, baina atxilotu egin zuten eta kartzelan hil zen. Inesa Gaxenen arrastoa, aldiz, 1611ko urrian galdu zen behin betiko, gabarraz Hendaiara eraman zuten egun hartan bertan, hain zuzen ere. Historian arakatuta, baina, bere hizkuntza eta ohiturak tinko defendatu zituen emakume ausart baten berri izan daiteke.



